



41. IEHEN KOLPEKA HARRI BIK...
ORAIN ERRAZ EGITEN DA SUA:
KIKI!

0. AZALA

Azalaren irakurketarako, zera proposatzen dizuegu:

Irakurri bion artean azalaren izenburuak dioena eta ondoren, hitz egin esaldiaren inguruan; ikus dezala haurrak azalaren irudia, eta, bion artean edo nahi duzuenon artean, antzetzu irudian agertzen dena. Nahi duzuen erara egin dezakezue, imajinazioa eta sormena erabilita.

Ea zer-nolako antzerkitxoa ateratzen zaizuen!

Antzerkia bideoz graba dezakezue, eta, nahi izanez gero, guri bidali!

1. AURKIBIDEA

Aurkibidean barneratzeko, lasai irakurri ahal diezaiokezu haurrari eskuineko testua: Testuak gure izaera, sustraiak eta abar ulertzeko ezinbestekoak diren margoen eta mezuen inguruan hitz egiten du. Zerbait misteriotsua denez, irakurtzean, tonu misteriotsua ematea proposatzen dizuegu! Haurra erakartzeko modua dela uste dugu! Eta ziur gaude hala izango dela, irakurtzen ari zaren horretara erakarriko duzula, alegia!

Ondoren, animatu haurra ezkerreko testua irakurtzera. Baliteke oraindik ez jakitea zer adierazten den ezkerreko testu horretan; beraz, azaldu zer jartzen duen eta irakurri bion artean: batek aldizkariko atala irakur dezake, eta besteak egileak zein diren!

Irakurtzeko orduan, zerbait aurkezten egongo bazinete bezala egin dezakezue. Beraz, horretarako, aurkezpenetan erabiltzen den doinua erabil dezakezue!

2. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Ipuintxo honetara sartu baino lehen, lantxo bat egitea proposatzen dizugu: fotokopiatu komikia eta moztu zatitan istorioa.

Esan haurrari gure laguntxoan istorioa irakurri nahi izanez gero lehenik eta behin bion artean ordenatu beharko duzuela!

Ordenatzean, irakurri nahi duzuen modura!



41. IENEN KOLPEKA HARRI BIK...
ORAIN ERRAZ EGITEN DA SUA:
KLIK!

3. ELEFANTE BAT HEGAN

Testu honi heldu aurretik, hitzen bingoaren jolasa proposatzen dizuegu:

Horretarako, bingo orriak prestatu beharko dituzue. Orriak zuek nahi dituzuen letrak izango ditu. Beraz, sortu letra askotako bingo taulak.

Ondoren, beste parte-hartzaile bat testua irakurtzen hasiko da, taularik gabe.

Testua irakurtzen doalarik, zuen taulako letrak izendatzen dituela konturatzean, letrak ezabatzen joan beharko duzue!

Taulako letra guztiak ezabatzea lortzen duena izango da irabazle!

4. ZALDIA

Zaldiaren testutxoan, animalia eder bezain polita horren inguruko hainbat informazio ematen digute. Baina nola landu testua?

Nahi izanez gero, zuk zeuk irakur diezaiokezu. Gure proposamena da haurrari barregura eman ahal dion doinuak irakurtzea! Irakurtzeko moduak eta doinuak ulermenean sekulako eragina izan dezakeela uste dugu; horregatik, oraingo honetan, barregura kutsua ematea gomendatzen dugu!

Amaitzean, eta ariketa irakurketa soila izan ez dadin, eskuak ere erabiltzea proposatzen dizuegu. Zertarako? Buztinezko zaldi polit eta dotoreak egiteko!

Eta, nola ez, gustura asko jasoko ditugu sortzen dituzuen zaldien argazkiak; beraz, animatu bat edo beste bidaltzera! Ziur gaude polit askoak egingo dituzuela eta!

5. MARIKALANBRE

Marikalanbreren istorioan, animatu hari irakurtzera, baina, irakurri aurretik, esan ondoren zerbait berezia egingo duzuela: gure arbasoek egiten zituzten margoak erreproduzitzea!

Baina zer egingo duzuen jakiteko, lehenik eta behin, beharrezkoa izango da gure laguntxoan istorioa irakurtzea.

Irakurri ondoren, beraz, lortu ikatza nonbaiten eta margotu paretak harekin!



41. IENEN KOLPEKA HARRI BIK...
ORAIN ERRAZ EGITEN DA SUA:
KIKI!

Hala ere, kontuz ibili, ezin izango baituzue margotu edozein pareta! Beraz, lehenik eta behin, ziurtatu, margotzen zoazten pareta hori margotu egin dezakezuela, eta, hala bada, eman bide sormenari, eta margotu gure arbasoek egiten zuten eran!

6. LARGABISTA

Haurra largabistaren istoriora erakartzeko zera proposatzen dizut:

Esan haurrari, testua bi aldiz irakurriko diozula. Lehenengoan, testua ondo irakurri beharko diozu, baina bigarrenean, hutsegiteak egingo dituzu: hitzak asmatu, esaldiak alderantziz esan... Bera konturatu egin beharko da, zer ari zaren gaizki irakurtzen!

Beste proposamen bat ere egingo dizut: libre duzuen egunen batean, zoazte Ekaingo haitzulora! Largabista eta gure laguntxoek egiten dutena egin dezakezue: haitzuloa ikusi, margoak ikusteko Ekainberrira joan...

Eta, badakizue, joaten bazarete eta argazkiren bat ateratzen baduzue, bidali guri!

7. PUPU ETA LORE

Pupuren eta Loreren bertsoek zer dioten jakiteko, galdetu haurrari ea nola irakurri nahi dituen!

Gero, proposatu berak beste bertso bat sortze! Bertsoari, irudia ere egin beharko zaio! Bion artean bat sor dezakezue, edo, nahi izanez gero, bakoitzak bat...

Bertsoek, Pupurenek eta Lorerenek bezala, errima izan beharko dute, eta Ekaingo haitzuloekin zerikusia!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Testutxoak irakurtzera animatzeko, esan haurrari bion artean irakurriko dituzuela. Gero, irakurritakoaren inguruan hitz egingo duzue, testuak ulertu dituzuela ziurtatzeko edo zerbait galdetu nahi badu galdetzeko. Ohartuko zarenez, hainbat hitz ezezagunak egingo zaizkio haurrari; beraz, hitzon esanahiak hiztegian begiratzuz argitu ditzakezue.

9. LAGUN

Lagun eta Urdin Ekainberri museora doaz. Haiek ematen diguten informazioa osatzeko modu bat proposatuko dizuegu:

- Aldizkarian, "Ekainberri" izenburupean duzuen atala irakurri eta ulertu egin beharko duzue, eta ondoren, hauxe egitea proposatzen dugu:



41. IENEN KOLPEKA HARRI BIK...
ORAIN ERRAZ EGITEN DA SUA:
KLIK!

-Erabaki Laguni eta Urdini zer kontatu nahi diozuen.

-Idatzi orri zuri batean zer kontatuko diozuen.

-Amaitzeko, hartu kartulina handi bat, egin hortxe Ekaingo kobazuloaren marrazki bat eta txertatu hautatu duzuen informazioa nahi duzuen moduan.

- Atal hau amaitzeko, elkarri galdera batzuk egin diezaiokezue:

-Zerbait gehiago dakizu orain atal hau irakurri duzula?

-Interesgarria izan da?

-Zerbait gehiago jakin nahi duzu?

10. OSASUNA GURE ONDASUNA

Tiritatxok larruazalaren higieñez hitz egiten digu. Gure proposamena hauxe izango da:

- Lehenik eta behin, etxe barruko irudietan erreparatuko dugu, eta bitarte horretan, galdera batzuk egingo ditugu:
 - Zer ikusten duzu irudietan?
 - Garbitasuna dela eta, zer esango zenuke?
- Jarraian, tiritatxoren aholkuak irakurri aurretik, orritxo batean, gorputzaren higienarako egiten dituzuen gauzak idatziko dituzue.
- Amaitzeko, Tiritatxoren aholkuak irakurriko ditugu, eta ondoren, alderatu zuek orrialdean idatzitakoarekin, ea zer egiten duzuen ongi eta zer dagoen hobetzeko.

11. MARTINBERTSO

Irakur ezazue, lasai-lasai, Martinbertsoren komikia. Komikia irakurri ondoren, ohartuko zarete, naturak ematen dizkigun elementuei bere soinua eta hitza eskaintzen diegula, hala nola haizeari, suari... Hala, hauxe proposatzen dizuegu: jantzi berokia, txapela, eskularruak eta behar diren guztiak, eta joan zaitezte zuen herritik gertu dagoen menditxo batera. Bidean, jar iezaiozue soinua ikusi eta sentitzen dituzuen elementuei. ANIMATU! IZUGARRI GUSTATUKO ZAIZUE!



41. IEHEN KOLPEKA HARRI BIK...
ORAIN ERRAZ EGITEN DA SUA:
KIKI!

12. IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Irrien lagunak klubak I. Bideo lehiaketa antolatu du. Azaldu iezaiozu haurrari zer egiteko aukera duen, eta, nola ez, animatu parte hartzera. Gure haurrak parte-hartzaile izateko ere, hezi egin behar dira; beraz, animatu zuen haurrak gauza askotan parte hartzera, eta, lagundu behar bada, LAGUNDU!

13. ZENBATAK

Prest irakurtzeko? Zenbaten komikian hiru pertsonaia agertzen dira. Banatu pertsonaiak, eta irakurri komikia, lasai eta ondo. Errespetatu ikurrak, hau da, galdera ikurrak, harridura ikurrak, komak, puntuak... Zaindu ahotsaren erabilera ere, hau da, errespetatu doinua, erabili doinu bat baino gehiago, irakurri esaldia behar den bezala, bere ikurrari zentzua emanda.

Amaitzeko, galdera batzuei erantzuteko proposamena egiten dizuegu:

1. Zer eskatu dio Olentzerori?
2. Zuen ustez, zergatik eskatu dio?
3. ...

14. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Oraindik Gabonetako oporrak amaitu gabe egongo direlakoan gaude; hori dela eta, talde handian irakurtzea proposatzen dugu. Galdetu: "Gustatuko litzaizueke komiki hau irakurtzea zuen lagunekin?". Ziur gaude baietz erantzungo dutela; beraz, antolatu ezazue arratsalde bat, lagunartean, komikia irakurtzeko. Gure nahia da komikia hiru pertsona helduk irakurtzea; bakoitzak bere pertsonaia hautatu eta irakurri beharko du. ASKO GUSTATUKO ZAIE HAURREI, IKUSIKO DUZUE!

15. EKAIN FEST

Atal honetara iristean, OINARRIAK izenburupean, azalpen batzuk ikusiko dituzue, eta gure proposamena haxe izango da:

1. Lehenik eta behin, hartu orri bat, eta moztu hamabi zatitan. Alde batetik, zati batzuetan, hitz hauek idatziko ditugu: NOR, NOLA, ZER AURKEZTU, NORA, EPE. Eta, beste horri zatietan, esaldia.
2. Ondoren, mahai gainean jarriko ditugu orri zati guztiak nahastuta.



41. IEHEN KOLPEKA HARRI BIK...
ORAIN ERRAZ EGITEN DA SUA:
KIKI!

3. Eta, amaitzeko, jolasari ekingo diogu, ea asmatzen duzuen bikoteak nola izango diren.

16. IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Irakur ezazue bertan ematen den informazioa, zuek erabaki elkarrekin irakurtzea nahi ote duzuen. Jarraian, jolas bat proposatzen dugu: asmakizunen bitartez, hor ageri diren elementuak identifikatu beharko dituzue; adibidez, honelako asmakizunak egin ditzakezue:

1. Hainbat koloretakoa, eta ez hain handia; ikusiko dugu alde batetik bestera, zer da? (Tximeleta)
2. Hau ere kolore eta forma askotakoa, askotan goraino betea, zer da?
3. ...